

Hitzarmena MU - Universidad Federal de Fronteira Sul

2012/05/23

Antonio Inacio Andrioli UFFSko errektoreordeak eta **Iosu Zabala** MUko errektoreak sinatu zuten hitzarmena, ondoan zituztela Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra (MST) elkarteko ordezkari bat eta **Nekane Arratibel** HUHEZIKo dekanoa.

Hain zuzen ere, egun hauetan Euskal Herrian da Brasilgo ordezkari bat, bost lagunek osatua. Horietatik hiru etorri dira Parana estatutik eta bi Sergipe estatutik. Bi dira MST mugimendukoak eta gainerakoak inguru haietako unibertsitate eta eskoletakoak. Bidaiaren helburu bat izan da hitzarmena sinatzea MUREkin, eta jarraipena egitea erakunde horiek Mundukide fundazioarekin eta Lanki ikertegiarekin martxan dituzten proiektuak.

